

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

1. MAILA

2026/2027 IKASTURTEA

MODULU LANERAKO IKASLEAREN GIDA



K1 MODULUA IRAKASLE LANBIDEA

Moduluaren koordinatzailea: Ainhoa Ezeiza Ramos

Aurkibidea

1) Sarrera	3
2) Modularen irakasgaiak eta irakasleak	4
3) Modulu lanaren aurkezpena	5
3.1 Modulu lana.....	5
3.1.1 Aurrekariak.....	5
3.1.2 "Irakasle lanbidea" izeneko modulua	5
3.2 Taldeen osaketa	7
4) Helburuak, konpetentziak eta ikaskuntza-emaitzak.....	7
5) Egin beharreko lana	11
5.1 Ezaugarri orokorrak.....	11
5.2 Metodologia.....	12
5.2.1 Lankidetzako eta ikerketan oinarritutako ikaskuntza	12
5.2.2 Tutorizatutako plana.....	13
5.2.3 Tutorearen zereginak.....	14
5.2.4 Ikasleen zereginak.....	14
5.3 Lana egiteko orientazioak.....	15
5.4 Kronograma eta lanaren faseak.....	17
5.5 Kontuan hartu beharreko beste alderdi batzuk.....	19
6) Ebaluazioa eta kalifikazioa	20
6.1 Etengabeko ebaluazio-sistema.....	20
6.2 Azken ebaluazioa.....	21
7) Ohar garrantzitsuak eta ohiko galderak.....	23
7.1 Plagioa eta adimen artifiziaia	23
7.2 Hizkuntzaren erabilera zuzena eta egokia	23
7.3 Modulu lanaren iturri kopurua.....	23

7.4 Talde-lanean parte-hartzea eta gatazken kudeaketa	24
7.5 Zalantzak argitzeko baliabideak	24
8) Erreferentziak	25
9) Glosategia	26
Eranskinak	27
1. eranskina. Diziplinarteko ebaluaziorako errubrika (etengabeko ebaluazio-sistema)	27
2. eranskina. Diziplinarteko ebaluaziorako errubrika (azken ebaluazio-sistema)	30

1) Sarrera

Gida honetan, EHUko Hezkuntza eta Kirol Fakultatean proposatu den diziplinarteko lanetako baten prozesua azaltzen da: Lehen Hezkuntzako graduako lehen modulua, K1 izenez ezagutuko duzuna. Modulu honen izena *Irakasle lanbidea* da.

Modulu honetan, ondoko bost irakasgai hauek hartzen dute parte: Hezkuntzaren Soziologia, Komunikazio Gaitasunaren Garapena I, Hezkuntzaren Teoria eta Historia, Irakasle Funtzioa eta Garapenaren Psikologia Eskola Adinean.

Material honek bi helburu nagusi ditu: batetik, moduluko diziplinarteko proiektuak ekarritako planteamendu berritzailearen ildo nagusiak islatzea; bestetik, horrekin lotuta sor daitezkeen zalantzarik ohikoenak argitzea.

Gidaren egitura honela labur dezakegu: (1) Modulu honetan parte hartzen duten irakasgaiak emango dituzten irakasleak zehaztea. (2) Modulu lana eta bere testuingurua. (3) Modulu honetan ikasleek egin behar duten lanaren nondik norako nagusiak: gaitasunak, edukiak, metodologia, tutoretza-sistema eta lana garatzeko orientabideak. (4) Ebaluazio-sistemak (5) Ohar garrantzitsuak (6) Gida honi lotutako bibliografia. (7) Eranskinak.

Sarrera amaitu aurretik, ikasketa plangintzak ekarritako antolaketa-xehetasun ugarien artean, bi azpimarratu nahi ditugu: irakasgaien arteko koordinazioa eta diziplinartekotasuna. Azken batean, elkarrekin aritzeko esparrua da geure Fakultatea, elkarren ondoan lan egiteko, sail bakoitza bere arlo espezialduaren ardura hartuta baina helburu komunak finkatuz, geroko maisu-maistrak ahalik eta ondoen prestaturik irten daitezen Fakultatetik.

ONGI ETORRI HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATERA!

2) Moduluaren irakasgaiak eta irakasleak

Ondoren, modulu honetan parte-hartzen duten irakasleak eta irakasgaiak bildu dira (1. Taula). *Oharra: gerta liteke irakasleen zerrendan aldaketak egotea.*

1. Taula

Lehen Hezkuntzako K1 moduluko irakasgaiak eta irakasleak

IRAKASGAIA	IRAKASLEA	BULEGOA	EPOSTA	TELEFONOA
Hezkuntzaren Teoria eta Historia	Naiara Escalante	1.1	naiara.escalante@ehu.eus	945 01 4202
	Iñaki González	1.1	inaki.gonzalez@ehu.eus	945 01 4176
Hezkuntzaren Soziologia	Ainhoa Alustiza	2.4	ainhoa.alustiza@ehu.eus	945 01 4229
	Olatz Dañobeitia	PDI-03	olatz.danobeitia@ehu.eus	945 01 3416
Romunikazio Gaitasunaren Garapena I	Ainhoa Ezeiza (K1 koordinatzailea)	PDI-02	ainhoa.ezeiza@ehu.eus	945 01 3326
Garapenaren Psikologia Eskola Adinean	Estitxu Ramos	2.5	estibaliz.ramos@ehu.eus	945 01 4215
	Iratxe Antonio	2.5	iratxe.antonio@ehu.eus	945 01 4225
	Arantza Fernández	2.12	arantza.fernandez@ehu.eus	945 01 4221
Irakasle Funtzioa	Oihane Fernández	B2	oihane.fernandezl@ehu.eus	945 01 4181
	Imanol Galeano	B8	imanol.galeano@ehu.eus	945 01 4187

3) Modulu lanaren aurkezpena

3.1 Modulu lana

Modulu-lana Lehen Hezkuntzako Graduaren barruan Hezkuntza eta Kirol Fakultatean garatutako diziplinarteko hezkuntza-ereduari dagokio. Atal honetan, aurrekariak jaso dira, eta K1 modulua aurkeztu da. Modulu horren bidez, ikasleek lan kooperatiboa eta ikerketa-lana egiten dute, 1. lauhilekoko bost irakasgaiak modu integratuan ulertzen laguntzeari begira.

3.1.1 Aurrekariak

2003-2005 ikasturte bitartean, Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolak bere *Autoebaluazio* Txostena garatu zuen, eta prozesu horretatik hausnarketarako eta hobekuntzarako hainbat ondorio atera ziren. Ateratako emaitzak orokorrean positiboak izan ziren, baina zenbait ahulezia ere agertu ziren, horien artean, koordinazio handiagoaren eta tutorizazioaren beharra.


Ondorioz, Eskolak laster ekin zion hobekuntzak egiteari, horretarako hainbat jarduera antolatuz. **2008 urteak garrantzi handia eduki zuen, orduan hasi baitzen egungo Graduetako plangintza diseinatzen;** Goi Mailako Hezkuntzaren Europar Esparrua eratzeke 1999an abian jarritako prozesua, *Bologna Plana* izenez ezagutzen duguna, guregana ailegatua zen, eta horren eskakizunak bete behar genituen: ECTS kredituak, gaitasunak, moduluak eta abar.

Irakasle formakuntzari begira, Planak bi gradu ezartzea zekarren: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza, horietako bakoitzak lau ikasturte izan behar zituelarik.

Graduen diseinurako, Euskal Herriko Unibertsitateko hiru campusetako Irakasle Eskolak (gaur egun Fakultate direnak) eta horien barruko sailtako ordezkariak barne hartu zituen **Eskolen Arteko Batzordea** sortu zen. Batzordeak graduak eduki behar zituzten lau ikasturteetako egiturari forma eman zion, horretarako Hezkuntza Ministerioak ezarritako gaitasunak oinarritzat hartuta. Ohitura, kultura eta lan metodoak aldatzea ez da erraza izan, baina gure Fakultateak gogotsuegindu planteamendu honen alde.

3.1.2 "Irakasle lanbidea" izeneko modulua

Lehen Hezkuntzako graduaren egitura modularra



(Iturria: EHU)

Hortaz, moduluko egiturak diziplinen arteko zatiketa –urruntzea– gaindituko duen kultura aldaketa eskatzen du. Horrela, planteamendu pedagogiko honek bere zentzu betea hartzen du irakasle-taldeak arlo guztiak integratzen dituen diziplinarteko zereginak elkarrekin planifikatzen dituenean. Izan ere, modulu lan horren bidez, **ikasleek modulurako diseinatu diren zeharkako kompetentziak eskuratuko dituzte** eta irakasleen elkarlana bultzatuko duen tresna bihurtu da.

3.2 Taldeen osaketa

EHUren IKDi3 hezkuntza ereduari jarraituz, Ikaskuntza Kooperatibo eta Dinamikoa sustatze aldera, modulu-lana ikasleek osatutako talde kooperatiboetan garatuko da. **Taldeak 5 ikaslez osatuta egongo dira** lau kideko taldeak salbuespen izango direlarik, eta **heterogeneoak eta mistoak** izango dira.

Taldeak honela osatuko dira: koordinatzaileak **zoriz bikote eta hirukote mistoak** egingo ditu; bikote-hirukote hauek taldearen erdia osatuko dute. Ikasleek erabakiko dute beste zein erdirekin elkartuko diren, taldea osatzeko. Hau da: koordinatzaileak azpi-taldeak osatuko ditu, eta azpi-talde hauek beste azpi-talde bat bilatu behar dute, taldea osatzeko. Elkarketa honetan, kontuan izan behar da **ezin direla seikoteak sortu**.

Lanaren helburuetako bat **taldeka lan egiten ikastea** da; beraz, ez da onartuko bakarkako lanik edo hasierako lan taldeen desagiterik. Taldearen barnean arazo larririk egonez gero, koordinatzailearekin jarri behar da harremanetan, irtenbide egokiena bilatzeko. Salbuespen eta ezohiko egoerak Modulu-etako Akordioen Gidan kontsulta daitezke (eGelan eta Fakultateko webgunean eskuragarri).

Talde bakoitzak lehen lauhilekoaren **3. asterako** talde-fitxa bat entregatu beharko du, eGela plataformaren bitartez, partaide bakoitzaren oinarrizko zenbait datu pertsonal eta akademiko bilduz. Talde-fitxan, ikasle bakoitzaren argazkia gehitu behar da, aurpegia argitasunez erakutsiko duena; argazki hori irakaskuntza helburuetarako soilik erabiliko da eta ez du inolako zabalkunderik izango.

3. astean bertan, moduluko koordinatzaileak taldeen behin betiko zerrenda argitaratuko du eGelan, modulu-lana egiteko prozesuan talde bakoitzari lagunduko dion **tutorearen izendapenarekin batera**.

4) Helburuak, konpetentziak eta ikaskuntza-eremak

Modulu lanak ikaskuntza-helburu garrantzitsuak ditu, eta Lehen Hezkuntzako hezkuntza-esparruarekin estuki lotuta dago. Batetik, helburua da hezkuntzari lotutako gaiak jorratzea **moduluko irakasgaien ikuspegiak integratuz eta iturri akademiko fidagarriak egoki erabiliz**.

Gaiaren azterketaren ondoren, **hezkuntza proposamen arrazoituak** garatu behar dira, beti Lehen Hezkuntzako ikasleen ongizatea eta ikaskuntza sustatzea xede hartuta. Horretarako, kontuan hartuko dira **bai kalitatezko eskola-ingurunea, bai hezitzaileen eginkizunak**, eta **jarrera kritiko eta arduratsuak** izateko beharra.

Azkenik, ikerketa-prozesu horren emaitza gisa, **idatzizko txosten akademiko bat** gauzatu beharko da, estilo akademiko-unibertsitarioan egituratua eta garatua.

Ikaskuntza helburu horiek guztiak lortzeko, ondorengo taulan agertzen dira lauhilekoan zehar jorratuko diren **konpetentziak**.

2. Taula

Lehen Hezkuntzako graduko 1. lauhilekoan garatzen den K1 moduluko konpetentziak

M01. Ikasleek ezagutu, aztertu eta balioetsi ditzatela baldintzatzaile historikoak, sozialak, psikologikoak eta pedagogikoak, eta hauen araberrako hezkuntza jardunak, uler dezaten eskolak gizartean duen eginkizuna eta haiek hezitzaile lanetan duten zeregina gaurko egunean, Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) aintzat harturik.

M02. Ikasleek ezagutu eta azter ditzatela Eskolaren egoera eta arazoak, ikuspuntu orokor diziplinarreko batetik, gai izan daitezten familiekin batera eta hezkuntzako profesionalekin batera lan egiteko, esku-hartzea egokituz komunikazio eta harreman egoera desberdinei.

M03. Ikasleak unibertsitatean beharrezkoa den alfabetatze akademikoan trebatzen has daitezten.

M04. Ikasleak lan kooperatiboan trebatzen has daitezten.

Lehen modulu honetan, **alfabetatze akademikoa** ere lantzen dugu, ikasleek tresna, ohitura eta forma akademikoei neurri egokia har diezaieten graduaren hasieran. Ikasleen lanek -ahozkoak nahiz idatzizkoak- zenbait baldintza bete behar dituzte; aitorpena duten informazio iturriak bilatzea, informazioa egoki kudeatzea eta erabilitako iturriak ondo aipatzea ezinbesteko baldintzak izango dira. Halaber, ahozko nahiz idatzizko lanek egitura formala izan beharko dute (aurrerago zehaztuko den moduan).

Irakasle lanbidea moduluan beste gako bat **lan kooperatiboa** da. Haur eta Lehen Hezkuntzako graduetakoko ikasleek beren etorkizunean irakasle-taldeetan lan egiteko prestatu behar dute; halaber, irakasle lanean ikaskuntza kooperatiboak gero eta garrantzi handiagoa du. Hori dela eta, taldeka lan egiteko gaitasuna garatzea ezinbestekotzat jotzen dugu. Lankidetzaren partekatutako helburuak lortzeko elkarrekin lan egitea da. Lankidetzan, pertsona bakoitzak berarentzat eta partaide guztientzat emaitza onuragarriak bilatzen ditu (Johnson et al., 1999).

Aipatutako alfabetatze akademikoak eta lan kooperatiboak moduluko irakasleek definitu duten **oinarri akademikoa** osatzen dute. Izan ere, halako oinarriaz ikasle berrien egokitzapena bermatu nahi da, unibertsitatean nahiz, etorkizunean, irakasle lanbidera begira; lanbide honek eskatzen dituen **jarrerak eta gaitasunak** kontuan hartuta. Era berean, oinarri akademikoa beharrezkoa da zeharkako konpetentziak garatzeko eta ondorengo modulu nahiz mailetakoko lanak arrakastaz gauzatzeko, azken helmuga Gradu Amaierako Lana izanik (GrAL).

Gakoak diren **konpetentzia** hauek garatzeko, moduluan eta lauhilekoan zehar **hainbat prestakuntza-jarduera** proposatuko dira, ikaslea bere ikaskuntza-prozesuaren protagonista bilakatzea helburu izango dutenak.

Zeregin nagusia hauxe izango da: konpetentzia horiek praktikan jarrita, **taldeka, idatzizko txosten akademiko bat lantzea**.

Lan horretan, ongi justifikatu behar da garatuko den gaia nola lotzen den UNESCOren 2030 Agendarekin eta, zehazki, Garapen Iraunkorrerako Helburuekin (GIH) (ikus. 2. Irudia). Horretarako, baliagarria da UNESCO Etxeak (2021) hezkuntza-eremurako argitaratutako ikaskuntza-helburuak aztertzea (hemen eskuragarri: <https://unetxea.org/eu/portfolio-item/garapen-iraunkorrerako-helburuetarako-hezkuntza-ikaskuntza-helburuak/>). Ez dira helburu guztiak landu behar, alderantziz: ongi aztertu behar da zein helburu diren garatutako gaiarekin harreman estua dutenak, eta arrazoiketa bidez justifikatu behar da zein zentzutan lantzen diren proposatutako ikuspegian.

2. Irudia.

Garapen iraunkorrerako helburuak 17+1 eredu



(Iturria: EHU)

Ondorengo taulan (3. Taula) ikus daiteke jardueren, moduluaren konpetentzien (MO) eta UNESCOren Garapen Iraunkorrerako Helburuen (GIH) arteko lotura.

3. Taula

K1 moduluko jarduerak, konpetentziak eta GIHak

	M01	M02	M03	M04	GIH3	GIH4	GIH5
Taldekatze-prozesua				X			X
Liburutegiko ikastaroa			X	X			
Aste pedagogikoa	X	X	X	X	X	X	X
Talde-tutoretzak	X	X	X	X	X	X	X

5) Egin beharreko lana

5.1 Ezaugarri orokorrak

Modulu-lana ikasle-taldeek elkarlanean egindako **txostena** da, eta Lehen Hezkuntzako Graduko hainbat gaitasun integratzea du helburu, ikaskuntza esperientzia esanguratsu, kooperatibo eta ikerketan oinarritutako baten bidez. Modulu lan horri esker, ikasleek **egungo hezkuntza-errealitateari lotutako gaietan** sakondu dezakete, **diziplina arteko ikuspegitik**, eta funtsezko gaitasunak garatzen laguntzen die, hala nola ikertzeko gaitasuna, idatzizko komunikazioa eta talde-lana.

Txostena lantzeko gaia tutorearen esleipenarekin batera aukeratuko da. Tutore bakoitzak bi edo hiru gai eskainiko ditu, eta talde bakoitzak gai horietako bat aukeratuko du. Gaiak irekiak direnez, ikasle-taldeak bere orientazioa emango dio. Horrek bermatzen du gai-esparru garrantzitsua eta Lehen Hezkuntzako graduko prestakuntza-helburuekin koherentea izatea, eta, aldi berean, **taldeak hautatutako gaiarekiko autonomia, motibazioa eta konpromisoa izatea**.

Gaiaren fokalizazioa esleitutako **tutorearekin eztabaidatu eta adostea ezinbestekoa da**, lanaren ikuspegira eta moduluaren prestakuntza-helburuetara egokitzen dela ziurtatzeko. Gainera, aukeratutako gaiak lotura argia izan beharko du Agenda 2030eko **Garapen Iraunkorrerako Helburu batekin edo gehiagorekin (GIH)** (2. Irudia), eta hori behar bezala justifikatu beharko da txostenean bertan (sarreran eta ondorioetan bereziki).

Tutorearen laguntzarekin gaia finkatuta, modulu-lanaren azken emaitza **txosten idatzia, egituratua eta funtsatua izango da**, eta jarraitutako ikerketa-prozesua eta taldeak lortutako ondorioak islatuko ditu. Gaiaren gaineko azterketa nahiz proposamena gauzatzeko, **ikuspuntua historikoa, soziala, pedagogikoa zein psikologikoa** landu behar dira, beti **iturri fidagarriak** erabiliz.

Txosten honek agerian utziko ditu **taldeko ikaskuntza, gaitasun espezifikoak menderatzea eta ikasleen garapen profesionala**.

5.2 Metodologia

2026-27 ikasturtean, ikerketa eta lankidetzako ikaskuntzan oinarritutako metodologiaren bidez, K1 moduluko ikasleek **moduluko konpetentziak eta oinarri akademikoaren gakoak** landuko dira, jarraian zehaztuko den modulu lanaren bidez.

Zehazki, modulu lanaren metodologiak funtsezko hiru ardatz nagusi ditu: **lan kooperatiboa, ikerketa-ikuspegia eta tutoretza-prozesua**, plangintzatik azken entregaraino.

5.2.1 Lankidetzako eta ikerketan oinarritutako ikaskuntza

Modulu lana, metodologia, aktibo **eta parte-hartzailean** oinarritzen da, **lan kooperatiboan eta ikerketa-ikuspegiaren oinarritua**. Konbinazio metodologiko horri esker, ikasleek Lehen Hezkuntzako graduako funtsezko gaitasunak gara ditzakete, ikaskuntza-esperientzia esanguratsua, kolaboratiboa eta ikerketa ardatz hartuta.

Idatzizko txostena **talde kooperatiboetan** egingo da, eta, bertan, **eginkizunen banaketa ekitatiboa, erantzunkidetasuna eta kide bakoitzaren inplikazio aktiboa sustatzen dira**. Talde-dinamika horrek laguntzen du pertsonen arteko trebetasunak garatzen, denbora eraginkortasunez kudeatzen, plangintza partekatua egiten eta erabakiak adostasunez hartzen. Taldeko kideen arteko etengabeko elkarreraginaren bidez, ezagutza modu kolektiboan eraikitzen da, ikaskuntza sakonagoa eta aberasgarriagoa bultzatuz.

Horrekin batera, modulu lana **ikerketarako hurbilketaren hasierako ikuspegi batetik** abiatuko da, eta hautatutako gaia oinarri hartuta, ikasleek bibliografia espezializatua berrikusiko dute, iturri fidagarriak hautatu, bildutako informazioa aztertu eta ondo oinarritutako ondorioak aterako dituzte. Prozesu horrek **pentsamendu kritikoa, analisirako gaitasuna eta hausnarketa pedagogikoa** bultzatzen ditu, eta horiek guztiak funtsezko gaitasunak dira etorkizuneko irakasleen prestakuntzan.

5.2.2 Tutorizatutako plana

Zeharkako konpetentziak lantzea ahalbidetzen duen modulu lanaren prozesua tutorizatu izango da; ikasleek egindako lanaren **gertuko jarraipena** eskaintzeko asmoz, taldeak moduluko irakasgaietako irakasleen artean banatuko dira. Era horretan, **irakasle bakoitzak bere taldeak tutorizatu, ebaluatu eta kalifikatuko ditu, eta ikasle horientzat erreferentzia bihurtuko da**. Ildo horretatik, tutoretza tutoreak ikasleei eskaintzen dien laguntzan, orientazioan eta gainbegiratzean datza. Tutoretza-laguntzaren funtzio nagusia ikasleak gidatzea da, **modu autonomoan baina laguntzarekin aurrera egin dezaten**, zalantzak argituz, zereginak antolatzen lagunduz, helburuak argituz eta lanak ikuspegi egokia jarraitzen duela ziurtatuz.

Behin taldeak osatuta, tutoreen esleipena eGelaren bidez argitaratuko da. **Ikasle-taldeak tutorearekin orduerdiko bi tutoretza egingo ditu.**

Lehenengo tutoretza 5. astearen amaierarako egin behar da, aste pedagogikoaren ondoren. Taldekideek eta tutoreek elkar ezagutzeaz gain, taldekide bakoitzaren ardurak zehaztuko dira eta gaiaren lehen hurbilketa egingo da. Lehen tutoretza horretan, taldeak **lanaren aurkibidearen eta sarreraren lehen zirriborroa** eramango du gutxienez, eta **ikasle bakoitzak lana egiteko iturri fidagarri bat proposatuko du, eGelan eskainiko den txantiloia erabiliz** (bilaketa-tresna zehaztuz, iturria APA arauen arabera idatzita).

Bigarrena urriaren amaiera eta azaroaren hasiera tartean egingo da, azaroaren 13rako beranduenik. Tutoretza honek garrantzi handia du taldearen funtzionamendu ona bermatzeko eta lanaren azken orientabideak jasotzeko. Horregatik, garrantzi handia du taldeak lana nabarmen aurreratua edukitzea. Gogoan izan tutoreek ez dutela lan idatzirik edo entrega partzialik zuzenduko, hau da, bi tutoretzen ondoren, zeinetan modulu-lanaren dokumentuak berrikusiko diren, ez da hirugarren tutoretza egingo.

Bi tutoretzak tutorearen ohiko tutoretza ordutegian egingo dira, klase ordutegitik kanpo, eta **ikasle-taldeen ardura izango da tutorearekin harremanetan jartzea data eta ordua zehazteko**. Praktika hau lagungarria da unibertsitateko tutoretzen funtzionamendua hobeto ulertzeko.

Edonola ere, tutorea erreferentziazko irudia izan arren, ikasleek moduluko koordinatzailearen laguntza ere edukiko dute, arazoak edo gatazkak ebazten

laguntzeko. 2026-2027 ikasturtean, Ainhoa Ezeiza irakaslea izango da K1 moduluaren koordinatzailea: ainhoa.ezeiza@ehu.eus

5.2.3 Tutorearen zereginak

Funtzionamendu kolektiboaren arrakastan eragin handia edukiko du irakasle bakoitzak bere zeregin propioak konpromisoz eta arduraz egiteak. Zeregin zerrenda luzea izan baliteke ere, hona hemen garrantzitsuenak:

- Esleitutako talde bakoitzarekin eskola orduetatik kanpo orduerdiko bi tutoretza adostea, taldeari orientabideak emateko.
- Modulu lanaren koordinaziorako bileretan parte hartzea.
- Moduluetarako Akordioen Gida ezagutzea eta errespetatzea (Fakultateko webgunean eskuragarri).
- Modulu Gida ezagutzea eta errespetatzea.
- Irakaskuntza gidan hurrengo alderdi hauek esplizituki jasotzea:
 - Moduluko konpetentziak
 - Modulu lanaren ebaluazio-irizpideak (moduluko irakasle taldeak adostutakoak)
- Modulu lana irakasle taldeak adostutako errubrikaren arabera ebaluatzea.
- Diziplinarteko ebaluazio-saioetan parte hartzea eta horretan partekatutako diziplinarteko kalifikazioak bere irakasgaian aplikatzea.
- Balorazio saioetan parte hartzea.

5.2.4 Ikasleen zereginak

Ikasleen kasuan, hauek dira zeregin adierazgarrienak:

- Modulu Gida ezagutzea eta errespetatzea.
- Moduluetarako Akordioen Gida ezagutzea eta errespetatzea (Fakultateko webgunean eskuragarri).
- Talde moduan funtzionatzea, hau da, lana zatikaturik garatu ordez, erabakiak elkarrekin hartzea, lanaren osotasuna denon artean bermatzea, kideek elkarri entzutea, lanaren erantzukizuna denona izatea, eta bizikidetza jarreraz lan egitea.
- Eskatutako zereginak zehaztutako moduan garaiz betetzea.

- Esleitutako tutorearekin orduerdiko bi tutoretza-saiotan biltzea, klase orduetatik kanpo.
- **Azken ebaluazioa egingo duen ikaslea izanez gero**, irakasgaietako irakasle bakoitzarekin tutoretza orduetara jotzea, lehenengo hilabeteaz zehar, eta koordinatzailearekin elkartzea (Ainhua Ezeiza), banakako proba nolakoa izango den jakiteko.
- Kontuan hartzea uneoro **jarrera gaitasuna bezain garrantzitsua dela**.

5.3 Lana egiteko orientazioak

Modulu-lana gauzatzeko, jarraian agertzen den egitura proposatzen da (4. Taulak **lanaren egitura nagusia** laburbiltzen du):

- 1) Aurkibidea
- 2) Sarrera
- 3) Testuingurua
- 4) Proposamenak
- 5) Erreferentziak
- 6) Eranskinak

4. Taula

K1 modulu lanaren egitura nagusiaren zehaztapena.

1) Aurkibidea	Aurkibidea egiteko, testu-prozesadorearen edukien aurkibidea erabiliko da. Horretarako, testuari formatu egokia eman behar zaio, izenburu-maila bakoitza ongi etiketatuz (estiloak erabiliz): 1. izenburua, 2. izenburua...
2) Sarrera	Txostenaren sarreran, Lehen Hezkuntzako graduako K1 moduluaren ezaugarriak azal daitezke. Egokitutako gaiaren egoera zein den argitu, gaiaren aukeraketa arrazoitu, eta azaldu behar da zergatik den garrantzitsua Lehen Hezkuntzan. Era berean, gaia GIH baten edo batzuen arabera aukeratu dela justifikatu beharko da, eta egungo hezkuntza testuinguruan duen garrantzia azaldu beharko da. Gainera, lanak dituen helburuak aipa daitezke sarreraren atalean eta lanak duen egitura aurkeztu. Honela antolatu daiteke: gaiaren aurkezpena eta egoeraren justifikazioa, GIH helburuekiko lotura, helburuak eta egituraren esplizitazioa (nondik nora joango den lana).
3) Testuingurua	Gure testuinguru geografiko eta kultural hurbilena kontuan hartuta, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoa, Lehen Hezkuntza etaparen garapen historikoa eta gaur egungo ezaugarriak ere lantzea interesgarria izan daiteke. Gainera, gure eskoletako errealitatea hobeto ulertzen laguntzen diguten faktore soziologikoak ondo identifikatzea eta azaltzea ere lagungarria izango litzateke.

	Era berean, komeni da lanean agertuko diren gako-kontzeptuak identifikatzea eta ongi definitzea, iturri egokien laguntzaz. Atal hau ongi garatzeko, ezinbestekoa da iturri bibliografikoak egoki aukeratzea eta erabiltzea. Iturri hauek APA 7 arauen arabera aipatu behar dira testuan zehar, eta saihestu behar da testu beretik informazio asko ateratzea. Helburua da edukien sendotasuna bermatzea, eta horretarako, informazio-iturri onak elkarren artean kontrastatu behar dira, iturri bakar batean pisu handia jarri gabe.
4) Proposamenak	Proposamenak egiteko, gaiaren analisia, interpretazioa eta balorazioa egin behar dira, testuinguruan garatutako kontzeptuak eta ideiak aplikazio zehatzetara ekartzeko. Testuinguruan garatutakoa ongi aztertu ostean, Lehen Hezkuntzaren eremuan aplikagarriak izango diren proposamenak egingo dira. Zenbaitetan, lagungarria da Psikologiaren edota Irakasle Funtzioaren eremuko iturri edo erreferentzietan oinarritzea: hezkuntza plan bat, protokolo bat, esku-hartze psikohezitzaile bat, proiektu bat, etab. Beste zenbaitetan, ekintza zehatzak ere proposa daitezke, beti testuinguru kontzeptualean garatutako kontzeptuetan oinarrituta.
5) Ondorioak	Ondorioen atalean, egindako proposamenak marko teorikoan garatutako ideiekin modu sintetikoan lotu behar dira. Lanaren beraren ondorioez gain, lanari amaiera eman aurretik, lanaren prozesua bera balioetsi dezakegu: hasierako espektatibak, bidean gainditutako zailtasunak, lanarekin lortutako asebetetze maila, talde-lanaren eraginkortasuna eta abar.
6) Erreferentziak	Atal honetan, lanean zehar erabilitako iturriak alfabetikoki zerrendatu behar dira eta APA 7 arauen arabera moldatu behar dira. Hemen soilik zerrenda daitezke lanean zehar egindako aipuen erreferentzia osoak, eta lanean egindako aipu guztiak jaso behar dira.
7) Eranskinak	Txostenaren eranskinetan, ikasle-talde balorazioa jaso beharko da, bai ikasle bakoitzaren balorazioa, bai taldearen balorazioa (kasu honetan, balorazio bakarra, denon artean adostutakoa), egindako lanaren autoebaluazio- eta koebaluazio-prozesuaren zati gisa. Beste eranskinik edukiz gero, ongi zenbakitu behar dira, bai lanean, bai atal honetan.

Lan idatziak **gehienez ere 10 orrialde** izango ditu (azala, erreferentziak eta eranskinak kontuan hartu gabe; aurkibidea, aldiz, zenbaketan sartzen da). Modulu-lana gauzatzeko, irakasle-taldeak eskainiko duen **txantilo ofiziala eta APA arauen materiala baliatu beharko da**. Dokumentu horiek guztiak eGelan egongo dira eskuragarri, bertatik deskargatzeko.

Ezaugarri formalak honako hauek izango dira:

- Azala. Eredua eGelan ikusgai dago.

- Letra-mota eta tamaina. Arial 11, EHUserif 11 edo EHUsans 11.
- Paragrafoa. Lerroartea 1,5 eta paragrafoen arteko tarte 6 puntu.
- Marjinak. 2,5 cm goian, behean, eskuin eta ezkerrean.
- Paragrafoen antolaketa. Justifikatua, ezker-eskuin lerrokatuta.
- Erreferentziak. APA 7 arauen arabera. Atal honetan, alderantzizko koska ("sangría francesa") erabili behar da.

Lana ongi gauzatzeko materialak eta baliabideak K1 eGelan daude eskegita: txantiloiak, talde-fitxak, ikaslearen autoebaluazio-fitxa, elkarren arteko ebaluazio fitxa, entrega egin aurretiko konprobazio-zerrenda, APA arauak laburbiltzen dituen materiala eta beste hainbat material baliagarri.

5.4 Kronograma eta lanaren faseak

Modulu lana egoki gauzatu ahal izateko, irakasle-taldeak plangintza adostu du. 5. Taulan, **lanaren mugarri nagusien kronograma** eskaintzen da. Ikasturtearen harrera-egunean, modulua eta modulu lana aurkeztuko dira. Horrez gain, ikasturte hasierako lehen asteetan, modulu lanaren gida azalduko da. Era horretan, ikasleek, beharrezkoak diren erabakiak hartu baino lehen, denbora edukiko dute gida lasai aztertzeke.

5. Taula

K1 modulu lanaren plangintza eta mugarri nagusiak (etengabeko ebaluazioa)

1. ASTEA Irailak 7-11	- Harrera ekintzak: • Irailak 7: Dekanotzaren harrera eguna. Dekanotzak jakinarazitako ordutegiari segiko zaio (webgunean ere argitaratua). • Irailak 8: moduluaren eta modulu-lanaren aurkezpena. Modulu gida eta Moduluetak Akordioen Gidaren aurkezpena. Ordutegiak eta lekua: → 47 taldeko ikasleak: 3.4 gela, 14:00-16:00 → 46 taldeko ikasleak: 2.5 gela, 16:00-18:00 - Oharra: irailaren 8an, ikasle-talde bakoitza soilik bere aurkezpen ordutegian etorriko da. - Eskolen hasiera: • Irailaren 9tik aurrera, irakasgaiak hasiko dira eta finkatutako ordutegiari eutsiko zaio.
3. ASTEA Irailak 21-25	- Koordinatzaileak bi-hiru kideko azpi-taldeak zoriz egingo ditu, heterogeneoak eta mistoak izango direla kontuan hartuz. Ondoren, ikasleen erabakia izango da zein beste azpi-talderekin elkartuko den.

	- Behin ikasle-taldeak osatuta, ikasle-fitxa bete, eskainitako txantiloia erabiliz, eta eGelara igo behar da. - 46 euskara taldean, taldekatzea kontuan hartuko da GA1/GA2 banaketa egiteko. IRAILAK 18: koordinatzaileak azpi-taldeak komunikatuko ditu. IRAILAK 24: talde-fitxa osatuta eGelara igotzeko azken eguna. IRAILAK 25: Talde bakoitzari egokitutako tutorea komunikatuko du koordinatzaileak.
4. ASTEA Irailak 28-urriak 2	ASTE PEDAGOGIKOA: K1 lana egiteko beharrezkoak diren zeharkako konpetentziak lantzeko saioak (BiblioLAGUN ikastaroa, APA arauak, talde-lana, datu-baseen erabilera, bilaketa bibliografikoak...) - Irakasgai guztietako praktika taldeetan, K1 modulu lanari lotutako jarduerak egingo dira, eta zenbait irakasgaitako saio teorikoetan ere bai (ikus. irakasgai bakoitzaren ikasle-gida). - Aste honetan, K1 lana idazten hasiko da.
5. ASTEA Urriak 5-9	- Beranduenik aste honen bukaerarako, tutore bakoitzak bere ikasle taldeekin lehen orientazio bilera egin behar izan du, modulu laneko jarduerak antolatzeko eta lana orientatzeko. - Tutoretza horretara, lehen bilaketa bibliografikoaren emaitzen fitxa eraman behar da, eGelan dagoen txantiloia erabiliz. Ikasle bakoitzak bere fitxa eramango du, bere bilaketaren emaitza biltzen duena.
10. ASTEA Azaroak 9-13	- Beranduenik aste honetarako, tutore bakoitzak bere ikasle taldeekin bigarren jarraipen-bilera egin behar izan du. - Tutoretza honetan, talde-ebaluazio eta autoebaluazio fitxak beteta eraman behar dira eta tutorearekin eztabaidatuko dira, taldearen osasuna aztertzeko.
13. ASTEA Azaroak 30 - abenduak 4	- ABENDUAK 1: Modulu-lanaren entregaren azken eguna. - Lana tutoreari epostaz bidaliko zaio eta eGelara igo behar da, BIAK. - Lana bidali aurretik, konprobazio-zerrenda errepasatu behar da, dena ondo bidaliko dela egiaztatzeko.
15. ASTEA Abenduak 14-18	- Kalifikazioen jakinarazpena: ABENDUAK 15, 18:00etatik aurrera - Kalifikazioaren berrikusketa (tutorearekin): ABENDUAREN 16TIK 18RA

Moduluetarako Akordioen Gidak (Fakultateko webgunean eskuragarri) modulu lana etengabeko ebaluazio-sisteman gauzatzeko zehazten dituen baldintzak bete ezean, **azken ebaluazio-sistema** jarraitu beharko da. Gomendatzen da egoera honetan dauden ikasleek irakasgai bakoitzeko irakasleari ez ezik, moduluko koordinatzaileari ere honen berri ematea.

Ebaluazio-sistema hau jarraitzen duten ikasleek moduluko koordinatzailea tutore izango dute bere ikasketa-prozesuan laguntzeko. Kasu honetan, ikaslea koordinatzailearekin harremanetan jarriko da tutorizatua izateko.

Azken ebaluazioan, ikasleek honako zeregin hauek izango dituzte:

- Bakarka egindako **lan idatzia**, 4. Taulan azaldu diren argibideak jarraituz (egitura, gaia, etab.). **Lan hau BERANDUENIK azterketa-egun ofiziala baino 7 egun lehenago entregatuko du ikasleak**, eGelan zabalduko den esteka erabiliz.
- **Fakultateak zehaztutako azterketa-data ofizialean** (urtarrilean), **hamar minutuko aurkezpena** egingo du, bere lanaren alderdi nagusiak azaltzeko. Ahozko aurkezpen hori modulu taldeko bi irakasleren aurrean egingo da eta irakasleek, aurkezpenaren amaieran, galderak edo iruzkinak egingo dizkiote ikasleari.

5.5 Kontuan hartu beharreko beste alderdi batzuk

1. **Hizkuntzaren erabilera zuzena eta egokia** ezinbestekoa da. Adierazpide linguistiko zuzena eskatuko da eta, akatsak nabariak direnean, edota testua ulergaitza denean, lana ez da zuzenduko eta hurrengo deialdirako hobetu beharko da. Hizkuntza erabilera ebaluatzeko, irakaslegaien prestakuntza egokia aintzat hartuta, Fakultatean adostutako errubrika baliatuko du irakasle taldeak. **15 akats larri baino gehiago (ergatiboa, komunztadura, ortografia, aditzen jokaerak) egiten badira, lana ez da gaindituko.**
2. **Ikuspegi teorikoa:** modulu lana egiteko, Lehen Hezkuntzako graduako lehen moduluko lau diziplina erabiliko dira: Hezkuntzaren Teoria eta Historia, Garapenaren Psikologia Eskola Adinean, Hezkuntzaren Soziologia eta Irakasle Funtzioa. Komunikazio Gaitasunaren Garapena I irakasgaia zeharkakoa da eta lanaren egituraketa eta garapenarekin dago loturik.
3. **Iturri kopurua: gutxienez, 8 eta gehienez, 12 iturri akademiko-zientifiko** erabiliko dira, moduluan lantzen diren irakasgaiekin lotura dutenak. Iturri hauek testuan zehar eta erreferentzien atalean **APA arauen 7. edizioari** jarraituz txertatuko dira.
4. **Plagioa eta adimen artifizialaren erabilera:** modulu lana ebaluatzeko proba eta jardueren ardatz izango dira EHUren araudian xedatzen diren printzipioak: zuzentasun akademikoa, zintzotasuna eta jarrera etikoa.

Ikasleak onartzen eta gogoratzen du unibertsitatean matrikula egin zuenean *Zintzotasunez eta portaera etikoz jokatzeko konpromiso adierazpena* izenpetu zuela eta, haren bidez, hitzeman zuela plagiorik edo bestelako iruzur akademikorik ez zuela egingo, ezta ebaluazio-probetan eta lanetan baimenduta ez dagoen objektu eta gailu teknologikorik erabiliko ere –adimen artifizialeko tresnak barne, halakorik berariaz baimenduta ez dagoenean–. Betebehar horiek urratzeak ondorio akademiko eta diziplinazkoak izan ditzake, unibertsitatean indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera; modulu lanari dagokionez, automatikoki suspendituta egongo litzateke (zero kalifikazioarekin), lana egin izan ez balu bezala, lan honek ebaluatu nahi dituen gaitasun espezifikoak garatzea eragozten baitu.

6) Ebaluazioa eta kalifikazioa

Modulu lanak irakasgai bakoitzaren kalifikazioaren % 20ko balioa izango du. Kalifikazio hori betiere adostutako errubrika kontuan hartuz finkatuko da (ikus. 1. eranskina) eta moduluko bost irakasgaietan aplikatuko da. Modulu lana gainditu bada eta irakasgaia ez, **modulu lanaren nota bi ikasturtez gordeko da. Denbora honetan gainditu ezean, lana berriz egin beharko da, azken ebaluazioko modalitatean.**

Ikasturte bakoitzean bi deialdi egongo dira: **ohikoa** eta **ezohikoa**. Hurrengo ataletan jasoko dira moduluari dagozkion ebaluazio-sistemak, eta deialdi bakoitzean (ohikoan zein ezohikoan) zehaztuko da nola burutu beharko den modulu lana eta nola ebaluatuko den (6. Taula). Bi ebaluazio-mota egongo dira, bata etengabeko ebaluazioa egiten duten ikasleentzat eta bestea azken ebaluazioa egiten dutenentzat.

6. Taula

K1 modulu lanaren deialdiak eta ebaluazio-sistemak

Ohiko deialdia		Ezohiko deialdia
<i>Etengabeko ebaluazioa</i>	<i>Azken ebaluazioa</i>	Azterketa (% 20)
Txostena (% 20)	Txostena (% 10) Aurkezpena (% 10)	

6.1 Etengabeko ebaluazio-sistema

Etengabeko ebaluazioa duten ikasleen kasuan ezinbestekoa izango da:

- Gutxienez hiru irakasgaietan matrikulatuta egotea (Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Moduluetak Akordioaren Gidari jarraituz).
- Gutxienez hiru irakasgaietan etengabeko ebaluazioa egitea.
- Ikasturtearen hirugarren asterako talde baten parte izatea.

Ebaluazio-mota hau egiten duten ikasleen kasuan, **tutore bakoitzak bere ikasle-taldearen ebaluazioa gauzatuko du**. Etengabeko ebaluazioko ikasleek txostena idatzi behar dute. Modulu lana gainditzeko, txostena gainditu behar da. Entregatzeko epemuga pasata, tutoreak ez badu kopiarik jaso edota eGelan kopiarik igota ez badago, taldeak lehenengo deialdian **EZ GAINDITUA** jasoko du. **Ez da epez kanpoko bidalketarik onartuko**.

Txostenak abenduko ebaluazioan gainditzeko maila ez badu, **ikasle-taldeak modulu lana suspendituko du**. Ondoren, ikasle-taldeak aukera izango du tutoreak proposatutako hobekuntzak egiteko, eta txostena beranduenez ohiko deialdiko **azterketa-data ofizialaren bezperan** bidali behar diote tutoreari posta elektronikoa bidez eta eGelara ere igoko du, horretarako zabalduko den esteka erabiliz. Plangintza sustatzeko eta ezarritako epeak betetzeko, ikasleei jakinarazten zaie **ohiko deialdirako bigarren entregan gehieneko kalifikazioa 20tik 14 puntukoa izango dela, nahiz eta txostenak baldintza guztiak bete**. Salbuespen kasuetan, egoera sakon aztertu ostean, koordinazio-taldeak proposa dezake txostenaren ordean azterketa-proba bidez ebaluatuak izatea; kasu honetan ere, gehieneko kalifikazioa 14 puntukoa izango da.

Irakasgaien irakaskuntza-gidetan jasotakoa kontuan hartuta **modulu lana giltza den irakasgaietan**, ohiko deialdian txostena gainditu ez duten ikasleek ezohiko deialdian idatzizko azterketa egin beharko dute.

Kalifikazioa koordinatzaileak eGelaren bitartez jakinaraziko du, 2026ko ABENDUAREN 15ean, 18:00etatik aurrera. **Tutoreak ez du kalifikazioa aldezturik jakinaraziko**. Berrikusketa talde bakoitzak bere tutorearekin egingo du, abenduaren 15-19ko astean.

6.2 Azken ebaluazioa

Azken ebaluazioa egin beharko duten ikasleak honakoak dira:

- Etengabeko ebaluazioa egiteko gutxienekoak betetzen ez dituzten ikasleak, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Moduluetak Akordioan Gidari jarraituz.
- Gutxienez hiru irakasgaitan etengabeko ebaluazioa egiten ari ez diren ikasleak.
- Ikasle-taldera moldatzeko zailtasunak dituzten ikasleak. Zailtasun horiek justifikatu behar dira eta koordinazio-taldearen onespina jaso behar du ikasleak azken ebaluaziora pasatzeko. Izan ere, irakasgaiak etengabeko ebaluazioan egiten dituzten ikasleek derrigor taldeka egin behar dute lana.

Moduluko irakasgaietan **etengabeko ebaluazioari uko egiteko eskaera** modulu-koordinatzaileari ere helarazi behar diote (ainhoa.ezeiza@ehu.eus) lauhilekoaren lehenengo 9 asteetan (epea: 2026ko azaroaren 6a). Horretarako beharrezkoa den inprimakia K1 eGelan dago eskegita.

Ebaluazio-sistema hau jarraitzen duten ikasleak **banakako proba baten bitartez ebaluatuak izango dira**, Fakultateak horretarako duen data ofizialean. Ikasleek **idatzizko txostena gutxienez azterketaren egun ofiziala baino 7 egun lehenago** entregatu beharko dute eGelaren bitartez, eta lanaren **ahozko aurkezpena** azterketa-egunean egingo dute, bi irakasleren aurrean. Aurkezpena amaitutakoan, irakasleek iruzkinak edota galderak egingo dizkiote ikasleari. Bi zatiak, idatzizko txostena eta ahozko aurkezpena, nahitaez gainditu behar dira.

Proba honen inguruko xehetasunak izateko, koordinatzailearekin jarri harremanetan (ainhoa.ezeiza@ehu.eus).

7) Ohar garrantzitsuak eta ohiko galderak

7.1 Plagioa eta adimen artifiziala

Modulu lana ebaluatzeko proba eta jardueren ardatz izango dira EHUren araudian xedatzen diren printzipioak: zuzentasun akademikoa, zintzotasuna eta jarrera etikoa. Ikasleak onartzen eta gogoratzen du unibertsitatean matrikula egin zuenean *Zintzotasunez eta portaera etikoz jokatzeko konpromiso adierazpena* izenpetu zuela eta, haren bidez, hitzeman zuela plagiorik edo bestelako iruzur akademikorik ez zuela egingo, ezta ebaluazio-probetan eta lanetan baimenduta ez dagoen objektu eta gailu teknologikorik erabiliko ere –adimen artifizialeko tresnak barne, halakorik berariaz baimenduta ez dagoenean–. Betebehar horiek urratzeak ondorio akademiko eta diziplinazkoak izan ditzake, unibertsitatean indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera; modulu lanari dagokionez, automatikoki suspendituta egongo litzateke (zero kalifikazioarekin), lana egin izan ez balu bezala, lan honek ebaluatu nahi dituen gaitasun espezifikoak garatzea eragozten baitu.

7.2 Hizkuntzaren erabilera zuzena eta egokia

Adierazpide linguistiko zuzena eskatuko da eta, akatsak oso nabariak direnean, edota testua ulergaitza denean, lana ez da zuzenduko eta hurrengo deialdirako hobetu beharko da. Hizkuntza erabilera ebaluatzeko, Fakultatean adostutako errubrika baliatuko du irakasle taldeak. **15 akats larri baino gehiago (ergatiboa, komunztadura, ortografia, aditzen jokaerak) egiten badira, lana ez da gaindituko.**

7.3 Modulu lanaren iturri kopurua

Gehienez 12 iturri akademiko-zientifiko erabili beharko dira, moduluan lantzen diren irakasgaien diziplina-eremuekin lotura dutenak. Aipuetan, tauletan, irudietan eta erreferentzietan, APA 7 arauak bete beharko dira.

7.4 Talde-lanean parte-hartzea eta gatazken kudeaketa

Modulu lana gainditzeko, ezinbestekoa da talde-prozesuan modu aktiboan parte hartzea eta elkarren arteko ebaluazioan nota positiboa lortzea. Taldeko kideen arteko partaidetzarekin lotutako gatazkak tutorearen laguntzarekin kudeatuko dira, beti talde-lan kooperatiboaren printzipioak eta erantzukizun partekatua oinarri hartuta. Gatazkak larriagoak direnean, koordinatzailearekin landuko dira. Taldekide batek jarrera desagokia, utzikeria edo eginkizunen betetze eskasa erakutsiko balu, zuzenean azken ebaluazio-sistemara pasako da.

7.5 Zalantzak argitzeko baliabideak

Gogoratu Moduluetako Akordioen Gidan (eGelan eta Fakultateko webgunean eskuragarri) ikasleek ohikoen planteatzen dituzten oinarrizko galderak eta horien erantzunak jasota daudela. Zalantzarik izanez gero, gida hori kontsultatzea gomendatzen da lehenik eta behin. Zalantza bertan ebatzita ez badago, koordinatzaileari galdetu: ainhoa.ezeiza@ehu.eus

8) Erreferentziak

- Cano, E. (2008). La evaluación por competencias en la educación superior. *Profesorado. Revista de Currículum y Formación del Profesorado*, 12(3), 1-16.
- Etxaniz Erle, X. (2004). *Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolako Titulazioen Autoebaluaziorako txostena* [ANECara bidalitako barne dokumentua]. EHU.
- Goodrich, H. (2000). Using rubrics to promote thinking and learning. *Educational Leadership*, 57(5), 13-18.
- Hernández, F. et al. (2005). *Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolako Titulazioen Kanpo-Ebaluazioaren txostena* (Publikatu gabeko eskuizkribua). EHU.
- Johnson, D. W., Johnson, R. T. eta Holubec, E. J. (1999). *El aprendizaje cooperativo en el aula*. Paidós.
- San Fabián, J. L. (2006). La coordinación docente: condiciones oraganizativas y compromiso profesional. *Participación Educativa*, 3, 6-11.
- UNESCO Etxea. (2021). *Garapen Iraunkorrerako Helburuetarako Hezkuntza. Ikaskuntza-helburuak*. <https://unetxea.org/eu/portfolio-item/garapen-iraunkorrerako-helburuetarako-hezkuntza-ikaskuntza-helburuak/>
- Zabalza, M. A. (2003). *Competencias docentes del profesorado universitario, calidad y desarrollo profesional*. Narcea.

9) Glosategia

- **EMATEKOA** edo aurkeztu beharreko lana (*entregable* gazt. eta *deliverable* ingl.): Ematekoa prozesu baten ondoriozko emaitza da, dela ahozkoa, dela idatzizkoa. Emaitza honen bidez, ikasleak gelan landutako edukiak ulertu, barneratu eta aplikatu dituela erakusten du. Ematekoak ebaluazioaren zati dira; alde horretatik, hortaz, lan ebaluagarriak dira.
- **ERRUBRIKA:** ebaluazio tresna bat da, zeregin edo jarduera baten maila eta kalitatea neurtzeko erabiltzen dena; errubrikan zeregin edo jarduera horiek ebaluatzeko irizpideak islatzen dira, bakoitzari esleitutako puntuazioa islatuz.
- **GAITASUNA EDO KONPETENTZIA:** egiten jakitea da, era konplexuan, ahalmen eta trebetasun askotarikoak (kognizio, afektibitate, psikomotrizitate edo gizarte mailakoak) eta ezagupenak bateratu eta egokitzetik sortzen dena, izaera komuna duten egoeretan (Lasnier, 2000 in Cano, 2008).
- **GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK (GIH):** Nazio Batuen Erakundeak (NBE) finkatutako helburuak dira, 2030 Agendaren baitan. Pertsonen, planetaren eta oparotasunaren aldeko ekintza-plan bat da, bake unibertsala eta justiziarako sarbidea indartzeko asmoa duena, eta Agenda sinatu duten herrialde guztiek dute konpromisoa helburu hauek betetzeko.
- **IRAKASKUNTZA GIDA:** irakaskuntza gida irakasgaiaren nondik norakoak garbi islatzen dituen dokumentua da; bertan, hezkuntza-helburuak, programa bera, programatutako jarduerak eta ebaluaziorako irizpideak agertuko dira, azken hauen kasuan, hala behar izanez gero, proba bakoitzaren haztapena ere. Hezkuntza-helburuek, programatutako jarduerak eta ebaluaziorako irizpideek elkarrekiko koherentzia agertu beharko dute. Irakasgaiaren oinarritzko programa talde ezberdinetako ardura duten irakasleek adostu beharko dute. Ados jartzen ez badira, Saileko Kontseiluak, irakasgaia ematen duten irakasle guztiak entzun ondoren, denek irakatsi beharreko gaiei buruzko erabaki arrazoitua hartuko du, bai eta onartuko diren salbuespenei buruzkoa ere.

Eranskinak

1. eranskina. Diziplinarreko ebaluaziorako errubrika (etengabeko ebaluazio-sistema)

Diziplinarreko ebaluaziorako errubrikan ageri denez (ikus. 7. Taula), lehenengo irizpidea **edukiaren egokitasun mailarekin** erlazionatzen da; irakasgaletan eta tutoretzetan landutako **arrazonamendu akademiko-zientifikoa** aplikatzearekin, hain zuzen ere. Horrek esan nahi du helburua ez dela gai bat garatzea edo iritzia azaltzea, besterik gabe; aitzitik, arrazonamenduak oinarri sendoa eduki behar du, horregatik, oso lotuta dago bigarren irizpidearekin, **iturri bibliografikoekin**, alegia. Eduki eta arrazonamendu egokiaren irizpide honi **notaren % 40** dagokio.

Bigarren irizpideak modulu lanean **iturriak erabiltzeko moduari** erreparatzen dio; horretarako, irakasle taldeak APA (*American Psychological Association*) arauen erabilera adostu du. Alde formal honi **% 30** dagokio.

Hizkuntzaren aldetik, ezinbestekoa da lana zuzen izatea. **15 akats larri baino gehiago** (ergatiboa, komunztadura, ortografia, aditzen jokaerak) **egiten badira, lana ez da gaindituko**. Horrez gain, **formatua** zaindu beharko da, koordinaziorako eGelan dauden txantiloak erabiliz. Paragrafo banaketa, lerroarte, letra-mota eta tamaina, eta bestelako formatu-elementuak zaindu eta homogeneizatu behar dira (**% 20**).

Beste bi irizpideak **ikasleen lan kooperatiboarekin (% 5) eta banakako erantzukizunarekin (% 5)** lotuta daude; izan ere, aipatu den moduan, uneoro kontuan hartu behar da jarrera gaitasuna bezain garrantzitsua dela. Hori ebaluatzeko, alde batetik, tutore bakoitzak kontuan hartuko du modulu lana prestatzeko eskaini diren saioetan lan talde bakoitzak erakutsi duen inplikazioa eta jarrera; beste aldetik, taldearen barruko kide bakoitzak bere burua ebaluatuko du taldeari egin dioten ekarpenarekiko. Bai talde-ebaluazioa, bai kide bakoitzaren autoebaluazioa, **tutorearekin batera egitea** proposatzen da.

7. Taula

Inguru akademikora eta irakasle lanbidera egokitzea: diziplinarako ebaluaziorako errubrika (etengabeko ebaluazio-sistema)

Irizpideak	Konpetentzien garapen bikaina	Konpetentzien garapen ona	Konpetentzien garapen nahikoa	Konpetentziak garatzen segitu beharra	%
Edukien eta arrazonomendu zientifikoaren egokitzapena	Proposatutako gaiaren garapenak ondo erantzuten dio hezkuntza egoerari, testuinguru kontzeptuala eta proposamenak estuki erlazionatuta daudelarik. Irakasgaietan eta tutorizatze faseetan landutako alderdiak oso egoki arrazoitu eta aplikatu dituzte. GIHei lotutako kontzeptuak eta bere dimentsioak (ingurumenekoak, sozialak, ekonomikoak) zehaztasunez jaso dituzte.	Gaiaren garapenak ondo erantzuten dio egoerari, lanaren zenbait atal guztiz konektatuta ez badaude ere. Irakasgaietan eta tutorizatze faseetan landutako alderdiak nahiko egoki arrazoitu eta aplikatu dituzte. GIHei lotutako kontzeptuak eta bere dimentsioak (ingurumenekoak, sozialak, ekonomikoak) nolabait jaso dituzte.	Gaiak dituen atalak elkarren artean guztiz konektaturik ez badaude ere, gaiaren garapenak proposatutako hezkuntza egoerari oinarritzko erantzuna eman dio. Irakasgaietan eta tutorizatze faseetan landutako oinarritzko aldeak aplikatu dituzte. GIHei lotutako kontzeptuak aipatu dituzte, analisia azalekoa izan bada ere.	Gaiari ez zaio erantzun koherenterik eman. Lanaren atalak ez daude elkarren artean erlazionaturik. Koherentziarik eta arrazonomendurik eza. Irakasgaietan eta tutorizatze faseetan landutako alderdiak ia ez dituzte aplikatu. GIHak ez dituzte aipatu edo ez dituzte lanarekin erlazionatu.	% 40
Informazioa bilatzeko eta kudeatzeko teknikak	Bibliografia errebisio landua (iturri akademiko-zientifikoak, profesionalak, teknikoak...) eta egoki interpretatua. Iturri guztiak zuzen aipatu dituzte (APA arauak), testuan eta amaierako zerrendan.	Liburuak, aldizkariak, internet... ondo konbinatu dituzte, irakurritako iturriak interpretatuz. Iturri gehienak ondo aipatu dituzte, APA arauak segiz.	Erabilitako iturrietatik ideiak literalki (edo ia literalki) hartu dituzte, iturri gehienak ondo aipatu badituzte ere, APA arauak erabiliz.	Iturririk eza edo ideiak kopia eta itsastera mugatuak. Erabilitako iturriak ez dituzte justifikatu, edota ez dituzte ondo aipatu.	% 30

Irizpideak	Konpetentzien garapen bikaina	Konpetentzien garapen ona	Konpetentzien garapen nahikoa	Konpetentziak garatzen segitu beharra	%
Idazketa, formatua eta zuzentasuna	Lana euskaraz zuzen idatzita dago eta egoki formateatu da (paragrafo banaketa, lerroarte, izenburu-mailak, letra-mota...).	Lana euskaraz zuzen dago idatzita, tartekako erroreren bat kenduta. Formatua egokia da orokorrean.	Lana euskaraz zuzen dago idatzita, zenbait ideia adierazteko zailtasunak izanda ere. Formatu aldetik, soilik tarteka daude desegokitasunak.	Euskaraz idaztean, errore garrantzitsuak antzeman dira edota zuzentasun-falta nabarmena. Formatua ez da zaindu (paragrafo banaketa, lerroarte, izenburuak...).	%20
Lan kooperatiboa	Ekipoak funtzionamendu bikaina erakutsi du modulu lana prestatzeko saioetan; kohesio bikaina erakutsi du eta gatazkak bideratzeko eta adostasuna lortzeko lan egin du.	Ekipoak funtzionamendu ona erakutsi du modulu lana prestatzeko saioetan; kohesio ona erakutsi du eta gatazkak bideratzeko eta adostasuna lortzeko lan egin du.	Ekipoak hainbat ahulezia erakutsi du modulu lana prestatzeko saioetan eta kohesio maila baxua, gatazkak bideratzen eta adostasuna lortzen saiatu bada ere.	Ekipoak ahulezia larriak erakutsi ditu modulu lana prestatzeko saioetan; ez du inongo kohesiorik erakutsi eta ez du jakin gatazkak bideratzen ezta adostasuna lortzen ere.	% 5
Banako erantzukizuna (Ikasleen elkarren arteko ebaluaziorako)	Modulu lana prestatzeko saioetan aktiboki aritu da eta ikaskideen parte hartzea bultzatu du. Ekipoari egindako ekarpena bikaina izan da.	Modulu lana prestatzeko saioetan aktiboki aritu da eta ikaskideen parte hartzea bultzatu du. Ekipoari ekarpen ona egin dio.	Modulu lana prestatzeko saioetan ez du oso aktibo jokatu. Ikaskideek bere parte hartzea bultzatu behar izan dute. Ekipoari ekarpen nahikoa egin dio	Modulu lana prestatzeko saioetan ez du parte hartu. Ekipoari ez dio ekarpenik egin.	% 5

2. eranskina. Diziplinarreko ebaluaziorako errubrika (azken ebaluazio-sistema)

Azken ebaluazio-sistemak **bi modalitate ditu: ohiko deialdia eta ezohiko deialdia.**

Ohiko deialdian, azken ebaluazioko ikasleek **idatzizko txostena** bakarka garatuko dute eta **K1 azterketaren egun ofiziala baino 7 egun lehenago entregatuko dute**, eGelan horretarako zabalduko den esteka erabiliz. **Ahozko defentsa azterketaren egun ofizialean egingo dute**, moduluko bi irakasleren aurrean. Aurkezpenaren ostean, **irakasleek galderak edota iradokizunak** egingo dituzte eta ikasleek une horretan bertan emango dituzte erantzunak. Proba hau egiteko, aurkezpen txandak egongo dira; hortaz, **txanda eskatu behar da**, aurkezpenak egoki antolatzeke. Horretarako, koordinatzaileari idatzi behar zaio: ainhoa.ezeiza@ehu.eus

Idatzizko txostena ebaluatzeke, **hiru irizpide hartuko dira kontuan: arrazonamendu akademiko-zientifikoaren maila (% 30), informazio-iturrien erabilera (% 20) eta hizkuntza eta formatua (% 20)**. Ahozko aurkezpena ebaluatzeke, berriz, **aurkezpenaren egokitasun akademikoa, argitasuna, hizkuntz adierazpidea eta egindako galderei erantzuteko gaitasuna (% 30) (ikus. 8. Taula)**. Bi atalak gainditu behar dira modulu-lana gainditzeko. Bestalde, **hizkuntzaren erabilera ona ez bada** (idatzizkoan, testu ulergaitza, 15 errore larri baino gehiago egotea...; ahozkoan, euskaraz adierazteko zailtasunak eta mugak antzematea), **arrazoi nahikoa izan daiteke lana ez gainditzeko**.

Idatzizko lanaren lehenengo irizpidea **edukiaren egokitasun mailarekin** erlazionatzen da; irakasgaietan eta tutoretzetan landutako **arrazonamendu akademiko-zientifikoa** aplikatzearekin, hain zuzen ere. Horrek esan nahi du helburua ez dela gai bat garatzea edo iritzia azaltzea, besterik gabe; aitzitik, arrazonamenduak oinarri sendoa eduki behar du, horregatik, oso lotuta dago bigarren irizpidearekin, **iturri bibliografikoekin**, alegia. Eduki eta arrazonamendu egokiaren irizpide honi **notaren % 30** dagokio.

Bigarren irizpideak modulu lanean **iturriak erabiltzeko moduari** erreparatzen dio; horretarako, irakasle taldeak APA (*American Psychological Association*) arauen erabilera adostu du. Alde formal honi **% 20** dagokio.

Hizkuntzaren aldetik, ezinbestekoa da lana zuzen izatea. **15 akats larri baino gehiago** (ergatiboa, komunztadura, ortografia, aditzen jokaerak) **egiten**

badira, lana ez da gaindituko. Horrez gain, **formatua** zaindu beharko da, koordinaziorako eGelan dauden txantiloak erabiliz. Paragrafo banaketa, lerroartea, letra-mota eta tamaina, eta bestelako formatu-elementuak zaindu eta homogeneizatu behar dira (**% 20**).

Ahozko aurkezpenean (**% 30**), berriz, diskurtsoa **testuinguru akademikora egokitzeak** garrantzi handia izango du. Lanak **antolamendu argia** izan behar du, idatzizko txostenaren atal nagusiak aurkeztuko direlarik. **Ahozko adierazpidea zainduko da** (erritmoa, ahotsaren doinua, gorputz hizkuntza...) eta **euskarri digitala** erabiliko da, aurkezpenean laguntzeko. Irakasleek egindako galdera edota iruzkinei erantzun argia, egokia eta ongi arrazoitua emango zaio.

Ezohiko deialdian, ez da idatzizko txostenik aurkeztu beharko. K1 azterketaren egun ofizialean etorri behar da, eta bertan, gai bat garatu beharko da 300-350 hitzetan, emandako material bibliografikoak erabiliz eta APA 7 arauen arabera egoki aipatuz (K1 eGelan APA 7 nola erabili azaltzen duen materialaren fotokopia garbi bat ekarri ahal izango da). Garapen Iraunkorreko Helburuen (GIH) aipamena eta arrazoiketa egitea ezinbestekoa izango da. Idatzizko txostenaren ebaluazio-irizpide berak erabiliko dira, hau da: **arrazonamendu akademiko-zientifikoaren maila, informazio-iturrien erabilera eta hizkuntza eta formatua (ikus. 9. Taula).**

8. Taula

Inguru akademikora eta irakasle lanbidera egokitzea: diziplinarako ebaluaziorako errubrika (azken ebaluazio-sistema)

Irizpideak	Konpetentzien garapen bikaina	Konpetentzien garapen ona	Konpetentzien garapen nahikoa	Konpetentziak garatzen segitu beharra	%
Edukien eta arrazonomendu zientifikoaren egokitzapena	Proposatutako gaiaren garapenak ondo erantzuten dio hezkuntza egoerari, testuinguru kontzeptuala eta proposamenak estuki erlazionatuta daudelarik. Irakasgaietan eta tutorizatze faseetan landutako alderdiak oso egoki arrazoitu eta aplikatu dituzte. GIHei lotutako kontzeptuak eta bere dimentsioak (ingurumenekoak, sozialak, ekonomikoak) zehaztasunez jaso dituzte.	Gaiaren garapenak ondo erantzuten dio egoerari, lanaren zenbait atal guztiz konektatuta ez badaude ere. Irakasgaietan eta tutorizatze faseetan landutako alderdiak nahiko egoki arrazoitu eta aplikatu dituzte. GIHei lotutako kontzeptuak eta bere dimentsioak (ingurumenekoak, sozialak, ekonomikoak) nolabait jaso dituzte.	Gaiak dituen atalak elkarren artean guztiz konektaturik ez badaude ere, gaiaren garapenak proposatutako hezkuntza egoerari oinarritzko erantzuna eman dio. Irakasgaietan eta tutorizatze faseetan landutako oinarritzko aldeak aplikatu dituzte. GIHei lotutako kontzeptuak aipatu dituzte, analisia azalekoa izan bada ere.	Gaiari ez zaio erantzun koherenterik eman. Lanaren atalak ez daude elkarren artean erlazionaturik. Koherentziarik eta arrazonomendurik eza. Irakasgaietan eta tutorizatze faseetan landutako alderdiak ia ez dituzte aplikatu. GIHak ez dituzte aipatu edo ez dituzte lanarekin erlazionatu.	% 30
Informazioa bilatzeko eta kudeatzeko teknikak	Bibliografia errebisio landua (iturri akademiko-zientifikoak, profesionalak, teknikoak...) eta egoki interpretatua. Iturri guztiak zuzen aipatu dituzte (APA arauak), testuan eta amaierako zerrendan.	Liburuak, aldizkariak, internet... ondo konbinatu dituzte, irakurritako iturriak interpretatuz. Iturri gehienak ondo aipatu dituzte, APA arauak segiz.	Erabilitako iturrietatik ideiak literalki (edo ia literalki) hartu dituzte, iturri gehienak ondo aipatu badituzte ere, APA arauak erabiliz.	Iturririk eza edo ideiak kopia eta itsastera mugatuak. Erabilitako iturriak ez dituzte justifikatu, edota ez dituzte ondo aipatu.	% 20

Irizpideak	Konpetentzien garapen bikaina	Konpetentzien garapen ona	Konpetentzien garapen nahikoa	Konpetentziak garatzen segitu beharra	%
Idazketa, formatua eta zuzentasuna	Lana euskaraz zuzen idatzita dago eta egoki formateatu da (paragrafo banaketa, lerroarte, izenburu-mailak, letra-mota...).	Lana euskaraz zuzen dago idatzita, tartekako erroreren bat kenduta. Formatua egokia da orokorrean.	Lana euskaraz zuzen dago idatzita, zenbait ideia adierazteko zailtasunak izanda ere. Formatu aldetik, soilik tarteka daude desegokitasunak.	Euskaraz idaztean, errore garrantzitsuak antzeman dira edota zuzentasun-falta nabarmena. Formatua ez da zaindu (paragrafo banaketa, lerroarte, izenburuak...).	%20
Ahozko aurkezpina	Aurkezpen bikaina egin du, diskurtsoa testuinguru akademikora egokituta. Lanaren atal nagusiak zuzen eta argi azaldu ditu, ahotsa ongi maneiatuz eta gorputz hizkuntza egoki erabiliz, Euskarri digitala argia izan da eta ongi sostengatu du azalpena. Euskararen erabilera ona eta egokia izan da, eremu akademikora egokitua. Galderak eta iradokizunak erantzuteko moduak ongi islatu du gaia menderatu duela.	Oso aurkezpen ona egin du, diskurtsoa testuinguru akademikora egokituta. Lanaren atal nagusiak nahiko zuzen eta argi azaldu ditu, oro har ahotsaren erregulazioa eta gorputz hizkuntza egoki maneiatu ditu. Euskarri digitala ongi erabili du, tarteka hitzez hitz irakurri badu ere. Euskararen erabilera zuzena egin du oro har, tarteka erroreak edo adierazpide mugatua erakutsi badu ere. Galderak eta iradokizunak ongi erantzun ditu, mugaren bat erakutsi badu ere.	Aurkezpen ona egin du, baina zenbaitetan ez du diskurtsoa testuinguru akademikora egokitu. Lanaren atal nagusiak azaltzea lortu du, zenbaitetan argitasuna falta izan badu ere. Zailtasunak eduki ditu ahotsa erregulatzeko edota gorputz hizkuntza testuinguru akademikora egokitzeko. Euskararen erabilera nahikoa izan da, hainbat errore edo adierazpide mugatua izanda ere. Euskarri digitala modu onargarrian erabili du. Zalantzi ibili da galderak eta iradokizunak erantzutean, gaia guztiz menderatu ez duen seinale.	Aurkezpena ez da ona izan. Ideiak ez ditu ongi antolatu eta aurkezpenak ez du argitasunik izan. Nabarmena izan da gaia ez duela menderatu eta ez du jakin erantzun koherentea ematen egindako galdera eta iradokizunen aurrean. Hizkuntzaren erabileran zailtasun nabarmenak izan ditu.	% 30

9. Taula

Inguru akademikora eta irakasle lanbidera egokitzea: diziplinarako ebaluaziorako errubrika (ezohiko azterketa)

Irizpideak	Konpetentzien garapen bikaina	Konpetentzien garapen ona	Konpetentzien garapen nahikoa	Konpetentziak garatzen segitu beharra	%
Edukien eta arrazonamendu zientifikoaren egokitzapena	Proposatutako gaiaren garapenak ondo erantzuten dio hezkuntza egoerari, testuinguru kontzeptuala eta proposamenak estuki erlazionatuta daudelarik. Irakasgaietan eta tutorizatze faseetan landutako alderdiak oso egoki arrazoitu eta aplikatu dituzte. GIHei lotutako kontzeptuak eta bere dimentsioak (ingurumenekoak, sozialak, ekonomikoak) zehaztasunez jaso dituzte.	Gaiaren garapenak ondo erantzuten dio egoerari, lanaren zenbait atal guztiz konektatuta ez badaude ere. Irakasgaietan eta tutorizatze faseetan landutako alderdiak nahiko egoki arrazoitu eta aplikatu dituzte. GIHei lotutako kontzeptuak eta bere dimentsioak (ingurumenekoak, sozialak, ekonomikoak) nolabait jaso dituzte.	Gaiak dituen atalak elkarren artean guztiz konektaturik ez badaude ere, gaiaren garapenak proposatutako hezkuntza egoerari oinarritzko erantzuna eman dio. Irakasgaietan eta tutorizatze faseetan landutako oinarritzko aldeak aplikatu dituzte. GIHei lotutako kontzeptuak aipatu dituzte, analisia azalekoa izan bada ere.	Gaiari ez zaio erantzun koherenterik eman. Lanaren atalak ez daude elkarren artean erlazionaturik. Koherentziarik eta arrazonamendurik eza. Irakasgaietan eta tutorizatze faseetan landutako alderdiak ia ez dituzte aplikatu. GIHak ez dituzte aipatu edo ez dituzte lanarekin erlazionatu.	% 40
Informazioa bilatzeko eta kudeatzeko teknikak	Bibliografia errebisio landua (iturri akademiko-zientifikoak, profesionalak, teknikoak...) eta egoki interpretatua. Iturri guztiak zuzen aipatu dituzte (APA arauak), testuan eta amaierako zerrendan.	Liburuak, aldizkariak, internet... ondo konbinatu dituzte, irakurritako iturriak interpretatuz. Iturri gehienak ondo aipatu dituzte, APA arauak segiz.	Erabilitako iturrietatik ideiak literalki (edo ia literalki) hartu dituzte, iturri gehienak ondo aipatu badituzte ere, APA arauak erabiliz.	Iturririk eza edo ideiak kopiatu eta itsastera mugatuak. Erabilitako iturriak ez dituzte justifikatu, edota ez dituzte ondo aipatu.	% 30

Irizpideak	Konpetentzien garapen bikaina	Konpetentzien garapen ona	Konpetentzien garapen nahikoa	Konpetentziak garatzen segitu beharra	%
Idazketa, formatua eta zuzentasuna	Lana euskaraz zuzen idatzita dago eta egoki formateatu da (paragrafo banaketa, lerroarte, izenburu-mailak, letra-mota...).	Lana euskaraz zuzen dago idatzita, tartekako erroreren bat kenduta. Formatua egokia da orokorrean.	Lana euskaraz zuzen dago idatzita, zenbait ideia adierazteko zailtasunak izanda ere. Formatu aldetik, soilik tarteka daude desegokitasunak.	Euskaraz idaztean, errore garrantzitsuak antzeman dira edota zuzentasun-falta nabarmena. Formatua ez da zaindu (paragrafo banaketa, lerroarte, izenburuak...).	%30